

ELKARRI MOKOKA: Pello Azpiroz eta Andrea Etxarri **HITZ ASPERTUAN:** Agurtzane Altuna

ELKARRIZKETA NAGUSIA: Orixenea Baserria **KUXKUXEAN:** Abenduko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



www.mailopea.com

Haize-Txulo: 40 urteko bolada



Ainhoa Iriarte (Arribe)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



40 urte bete ditu Gorritiko Haize-Txulo elkarteak. Joan den hilean bazkideek bazkari batekin ospatu zuten urteurrena.

eskolatik Mailopera!

Ibarberri eskolako 3 urteko ikasleak lanean hasiak gara...

Ikasturte hasiera gogotsu hasi dugu 3 urtekook. Orain goan, udazkena landu dugu. Gustura ibili gara udazkeneko kolore, hosto, onddo eta fruitu gozoen artean.

Pila bat ikasi dugu!



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- **Gosariak Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitzberri

- oparitzeko txartelak
- estetika eta ile-apaindegiko produktuekin osatutako saskiak
- pack formatuko eskaintzak
- perfumeak
- bestelako opariak

Lako beikoa

Betelu 31890

948 513 083

696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Eguberri hauetan
oparitu ezazu edertasuna,
oparitu zoriontasuna!

04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez



16 > Orixenea Baserria

Iurgi Goikoetxea eta Oihana Iraola Intzako Orixenea baserrian bizi dira martxoaz geroztik eta baserriko oilasko, barazki eta bestelako produktuak ekologikoan ekoizten hasi dira.



20 > Leiho bat munduari begira

Ibarberriko 4. mailako ikasleak Lekunberriko Udalak martxan jarri dituen aurrekontu partehartzaileetan euren proiektua aurkeztu dute, arbel digitala erosi ahal izateko.

23> Kultura



25 > Gure Esku Dago

Abenduaren 17an Gure Esku Dagok ekainean egingen duten herri galdeketaen aurkezpena egingen du Lekunberri.

26> Ekinaren ekinez: Harold Nuin

28> Hitz aspertuan: Agurtzane Altuna

29> Kuxkuxean: Abenduko zorion agurrak

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

Elkarbizitzaren alde, ospa!

Altsasuko gertakarien haritik azken egunetan egin dituzten atxiloteki buruzko irakurketa:

Hamabi gazte inputatu eta zazpi espetxeratu. Egozten zaien delituarentzako Zigor Kode berrituak, 10 eta 15 urtera arteko espetxe zigorra aurreikusten du. Carmen Lamela epaileari justiziazkoa iruditzen zaio gau hartako liskarrari terrorismoaren etiketa ezarri eta gazteak denbora luze hori ziega batean preso emateari.

Eszena: Jaietan dagoen herri bateko taberna, goizeko ordu txikiak, Guardia Zibileko bi kide herritarrei mehatxuka. Amaiera: Lis-karra militarren eta hainbat herritarren artean.

Hortik aurrera, salbuespen neurri eta bitartekoen kateatze zoroa: herriaren okupazio militar masiboa; komunikabideen oldarraldia; politikari muturrekoenen jazarpen zuzena; neutraltasun itxura eman nahi duten politikarien jazarpen zeharkakoa; liskarretik terrorismora eta justizia arruntetik salbuespen epaitegiatarako jauzia; euren borondatez deklaratzera epaitegietan aurkeztu ziren gazteen gau-erdiko atxiloteta mediatikoak; euren borondatez deklaratzera epaitegietan aurkeztu ziren gazteen espetxeratze prebentiboa "ihes egiteko arriskua" dela eta; Guardia Zibilaren aurkako "jarrera probokatzaileak, manifestazioak, kontzentrazioak, pintadak, pankartak eta afixak, bideoak eta sareen erabile-ra" terrorismo izendatzen dituen sumarioa; 10-15 urteko espetxe eskaera, defentsari frogak aurkezteko aukerarik eman gabe; akusazioak delitua frogatu beharretik akusatuek inozentzia frogatu beharrera (ohiko pirueta); Alde Hemendik aldarrikapenaren kriminalizazio judizial eta mediatikoa (baita, bide batez, Ahotsa komunikabidearena ere); Ospa! mugimenduaren legez kanporatze bati ateak ireki nahia?

Bost urte dira Euskal Herrian bizi dugun ageriko biolentzia politiko antolatuta bakarrik estatuarena edo askotariko administrazioenak direla. Salbuespen epaitegiak, legedi antiterroristak, inkomunikazioa... Horiek guztiak (eta gehiago) ordenamendu juridikotik desagertu egin behar dira.

Berdin Guardia Zibila Euskal Herritik.

Absurdoa da otsoa begetariano bihurtu nahi izatea, alferrikakoa intxaurrondoari intxaurraz besteko fruiturik eskatzea, ameskeria ura eta olio bateratzen saiatzea. Absurdoa, alferrikakoa, ameskeria litzateke estatuak disidentzien aurkako salbuespen armategi erraldoia beren borondatez indargabetuko duten egunaren espe-roan geratzea.

Guk bakea nahi dugu, bakean uztea. Estatuak ez dute borondaterik bakeari bide emateko. Ez dago errespetuzko elkarbizitza eraikitzerik ez badago horretarako borondaterik. Beraz, elkarrekin ezin denean, hobe nor bere aldetik. Zuek zuenetik... Alde hemendik!

Alde Hemendik Larraun

Gertaerak eta gertaerak

Estatu osoak eta gehiagok segur aski izan du, Altsasun urriaren 15ean gertatu zenaren nolabaiteko berri, baina, Iruñean urriaren 25ean, hau da, hamar egun geroago, arratsaldeko ordu biak aldera, Espainiako Poliziaren komisarian gertatu zena, ordea, hedabide handi horiek ez dute asko zabaldu. Izan ere, Iruñeko Chinchilla kaleko komisaria horretan eta azaldutako orduan gutxi gorabehera, ziegara eramateko zain zegoela hil zen gizonetzko bat, kalabozora eramatekoak zirela. Geroago jakin genuen hildako gizona senegaldarra zela, eta, lekuko batzuen arabera, polizia hartu zutenerako konorterik gabe omen zegoen, eta furgioan sartu omen zuten zaku patata balitz bezala.

Orain, egun batzuk igaro direnean, azter dezagun pixka batean gertaera baten eta bestearen tratamendua hedabideetan. Altsasukoan, hedabide batzuei kosta ahala kosta interesatzen zitzairen sinetsaraztea, 50 pertsonak baino gehiagok aurrera eramandako terrorismoko segada maltzur eta antolatuta bat izan zela, nahiz eta Guardia Zibilaren eta Foruzaingoaren txosten ofizialek aurkakoa esan. Hedabide, alderdi politiko eta pertsona askorentzat ekintza terroristarena azpimarratzea eta fermuki sinetsaraztea, gero errudunak Madrilen epaituak izan daitezen, guztiz funtsezkoa omen da, nahiz eta, ikusi dugun bezalaxe, hasieran 50 erasotzaile gaizto eta arriskutsu izatetik 8ren bat izatera pasatu omen diren.

Lehenengo kasuan, eta bere larritasuna batere ukatu eta gutxietsi gabe, zaurituak, kolpatuak eta irainduak izan dira, eta bigarrenetan, ordea, gizon bat hila, baina, jakina, azkeneko hau ez zen guardia zibila edo bere bikotekidea, eta ondorioz bere biziak askoz ere gutxiago balioko zuen, eta, gainera, etorkina izanen zen, beltza, ez aberatsa, pertsona arrunta, gehienentzat -gehienontzat- ezezaguna; nolabait esateko, ezdeusa zen. Eta, nork babestu zituen bere giza eta osasun eskubideak? Poliziek furgioan sartu zutenean konorterik gabe baldin bazegoen, zergatik eraman nahi ote zuten ziegara eta ez ospitalera, esate baterako? Argituko ote digute kasu hau batere modu zientifiko eta sinisgarrian? Horra hor galdera. Denborarekin ea zer jakiten dugun, baina, berriz ere argi eta garbi gelditu zaiguna da, gertaera guztiak ez direla berdin tratatzen, epaitzen, baloratzen eta aztertzen.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz

*Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.*

**LEKUNBERRIKO EH BILDUK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**


Lekunberriko Udalak:

- 1.- Espainiako armadak Lekunberrin, Larraunen eta Leitzan, inori horren berri eman gabe, baimenik gabe, eta segurtasun-protokolorik nahiz segurtasun-neurririk gabe egindako maniobra militarrek salatzen ditu.
- 2.- Bat egiten du Larraun, Lekunberri eta Leitzako hainbat herritarrek maniobra militar horiek direla eta adierazitako kezka, ezinegon eta haserrearekin.
- 3.- Bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustua berresten du, eta adierazten du armadaren agerraldi eta erakustaldiek ez dutela ildo horretan laguntzen eta, are gehiago, aurkako norabidean eragiten dute.
- 4.- Honakoa eskatzen dio Espainiako Gobernuari eta armadari: ez dadila berriz gisako maniobra militarrik egin, ez aipatutako hiru udalerrietan, ez Nafarroako gainerako udalerritan ere.
- 5.- Nafarroan eta Euskal Herrian dauden indar militarrei beraien estrukturak desmuntatzea exijitzen dio Espainiako ejertzitoari, horrela, hemen gastatzen diren baliabide ekonomikoak gastu sozialetarako erabiliz.
- 6.- Akordio honen berri prentsari eta herritarrei jakinaraztea erabakitzen du.
- 7.- Akordio honen berri Nafarroako Gobernuari eta Defentsa Ministerioari jakinaraztea erabakitzen du.

JoandakoakGogoan

- 5 -

“Zuhaitz bezala lurrean, kantuak bezala haizean...”



Izaskun Arrue Goikoetxea

2016ko azaroaren 10ean hil zen 89 urte zituela.

Arribeko alaba zen eta Gasteizko Aita Raimundo Olabide ikastolako sortzailea eta bertako lehenengo zuzendari eta andereñoa izan zen. Aurretik bere etxean ematen zituen klaseak. Erizain lanetan ere aritu zen eta euskararen alde lan handia egin zuen.

“Lezetan, 1950etik 1059ra, elkarrekin bizitako une goxoak (sukaldean, eskolan...) gogoan ditugu eta izango ditugu. Zurekin solastu eta ikasteko zortea izan ginunok harro gaude zu ezagutu izanaz eta eskerrak ematen dizkizugu guztiagatik”.

Etxetxikiko familia

asegurogintza
aseguru aholkulariak
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da
Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris1@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Ainhoa Iriarte (Arribe)



Nola ospatzen duzu
Euskararen Eguna?
Denontzat baita hauxe
egun ezaguna
euskaraz hitz eginez
egin ahalegina
hizkuntza bizi dadin
egin behar duguna

Azkenaldian bada
halako joera
euskara gure hizkuntza
kalera atera
poliki bada ere
euskaldunak gara
noizko denak euskaraz
horixe galdera.

Juan Cruzentzako puntua eta oinak:

Mailopek jarri gaitu
guztio kantari

Oinak:
Plazara-algara-zirrara-gara



Doinua: *Triste bizi naiz eta*

- 6 -



2. ESKUKO AZOKA ABENDUAREN 3AN ETA 4AN

Azken urteotan ohitura bihurtu den moduan, abenduaren 3an eta 4an bigarren eskuko azoka izanen da Lekunberriko frontoian. Bi egunez, goizez eta arratsalde, bigarren eskuko arropa, liburuak, jostailuak eta beste-lakoak merke-merke erosteko aukera ezin hobea. Animatu eta joan!

MUS TXAPELKETA HILERO KATTAGORRIN

Lekunberriko Kattagorri Elkartearen Mus txapelketa egiten hasi dira hilero azken ostiraletan. Gaueko hamarretan hasten da txapelketa. Dagoeneko zenbait txapelketa jokatu dira eta hiletik hilera geroz eta lagun gehiago joaten da Kattagorri.

ERTZILLA UR PARTZUER-GOKO LEHENDAKARITZA

Mikel Betelu Ertzilla Ur Partzuergoko lehendakari izendatu zuten joan den hilean. Camino Garralda izanen da lehendakariordea. Partzuergoaren egoeraren berri emanen digute urtarrileko alean.

Trump garaile



Pello Azpirotz

lepa denoi! Neguan sartzeaz gaude, tenperaturak jaisten ari dira eta egunak geroz eta motzagoak dira. Ni jada elurraren esperoan nago, azken urteetan gutxi egin du eta aurten ere ez dakit askorik egingo duen. Pil-pilean dagoen gai bat dakarkizuet gaur, Trumpen ezusteko garaipena AEBetako hauteskundeetan.

Munduko herrialde indartsuena-tako baten lehendakaria zein izan-nahiak ikusmin handia piztu zuen herrialde gehienetan. Nahiz eta inkestek ez zuten faboritotzat jo, Trumpek irabazi egin zuen. Kezkatuta nagoela onartu behar dut, ez dudalako ulertzen nola den posible kanpainen zehar esan dituenak esanda (oso adierazpen arrazistak, ma-

“Aldaketak gertatzeko indiferentzia eta konformismoa alde batera utzi beharko genituzke”

txistak...) jendeak hala ere berari bozkatzea. Argi gelditu da Trumpen garaipena AEBetako gizartearen zati handi bateko mentalitatearen isla dela. Honekin ez dut esan nahi Clintonen aldekoa naizenik, ez zitzaidan bi hautagai horietatik bat bera ere gusatzten eta.

Baina hain urrutiraino ez da joan beharrik eskuin atzerakoiaren gorakada eta garai-penak ikusteko. European zehar geroz eta gehiago dira. Espainian, horren adibide da berriro ere agintean egongo den partidua. Izugarritzko murrizketak egin (arloan ekonomikoan, eskubideei dagokienez...) eta ustelkeria kasu asko aterata ere, oraindik eserleku gehiago ateratzen dituzte.

Triste da, baina jende askorengan bizi dugun egoera politikoari buelta emateko gogo gutxi ikusten dut. Zorionez, Nafarroan egoerak hobera egin du azken bi urteetan gobernu aldaketarekin, baina benetako aldaketak gertatzea nahi badugu indiferentzia eta konformismoa alde batera utzi beharko genituzke. Aktibazioa eta herritarren parte-hartzea oso garrantzitsuak direla uste dut egoera politiko onartezinei buelta eman ahal izateko. Zer moduz, Andrea? Zer iritzi duzu zuk gai honen inguruan?

Negu berri on, Pello! Azken aste euritsu hauetan bezala, berokia lotu eta aterkia irekita ibili beharko dugu, erortzen zaizkigun berri hauek guztiak bustita eta itxaropen hotzez ez uzteko. Bai, egia da Trumpen gaia bueltaka ibili dela azken aldi honetan, baina ez dut uste Trump ondorio bat denik, sintoma bat baizik. Gizadiaren berekoikeria eta beldur-rrak zuzenduriko gizarte gaixo baten sintoma.

Egia da AEBko buru izendatutako pertsona honen izaerak ez duela ezta urrutitik ere politikoki zuzena dena ezta moralki egokia dena irudikatzen.

“Lehen pausoa norberak bere lehentasunak zein diren garbi uztea da”

Bere adierazpenek beste gauza batzuen artean haren izaera banatzaile, berekoi eta matxista azaltzen dute. Gainera, zuk aipatu bezala, ez da AEBetan soilik gertatzen den fenomeno bat. Europako beste zenbait tokitan ere, moralki zuzena kontsideratzen dugunetik urrun dauden ideologiaren edo irtenbide politikoen alde egiten da apustua, zenbait kasutan guztientzako giza eskubideetan eta bizikidetzan zuzenki eraginez.

Baina, zer neurritan axola dio horrek gizarteari? Hori da kontua. Lehen pausoa bakoitzak modu zintzo batez bere lehentasunak zein diren garbi uztea dela uste dut. Zer den norberarentzat garrantzitsua. Zer gizarte mota nahi dugun. Zer

jaso nahi dugun. Eta garrantzitsuena: gizarte horren alde, zer egiteko edo zer eskaintzeko prest gaude? Argi izan behar dugu, ez direla gauzak hobetzen esfortzurik gabe, eta batzuetan besteek zenbait eskubide izan ditzaten beste batzuek zenbait “pribilegio” galdu behar dituztela. Eta hor dago zailtasuna. Horretan, eta aurrera joateko ezaguna dugun hori askatzeak ematen digun beldurrean.

Beraz, has gaitezen egunerokotasunean guztiontzako gizarte atsegin bat sortzen, ahaztu gabe gizartea etxe handi bat bezalakoa dela, esfortzu, eskuzabaltasun eta adorerik gabe neguan surik gabe geratuko dena. Eguberri on denoi eta ez ezazuela itxaropenik galdu!



Andrea Etxarri





Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Eskolako nota txarrak

Gurasoen kezken artean, seme-alabek eskolatik ekar ditzaketen notak daude. Haurra eskolan hasten denean, ez ditu azterketak egiten eta ez zaizkio notak jartzen; balorazioak egiten zaizkio eta hauek bidaltzen zaizkie gurasoei. Oraindik gazteegia omen da noten ebaluzio-sisteman sartzeko. Hortaz, haur gazteari egiten zaizkion lehenengo urteetako balorazioak zabalak izaten dira eta, batez ere, umearen jarrerak eta ahalmenak hartzen dituzte kontuan. Baina, eskola gehienetan, dagoeneko umeak DBHra hurbiltzen direnean, hasten dira lehenengo progekin eta azterketa txikiak eta hauei aurreneko notak jartzen zaizkie. Badaude, hala ere, azterketak inoiz egiten ez dituzten eskolak, ez haur-eskolan, ez DBHn, baina hauek gutxi dira, oraindik.

Dena den, ikasleari notak jartzen zaizkionean suposatzen da notek islatzen dutela ikaslearen ezagutza-maila. Ondorioz, nota txarrak ateratzen dituen ikasleari suposatzen zaio ez dakiela eta ez duela esfortzurik egiten ikasteko. Hala okerrago, umea ez dela gai ikasteko. Lehen, maiz entzuten zen “ez baduzu ikasteko balio, lanean hasi beharko duzu”. Eta oraindik gure gizartean oso barneratuta dagoena: ikasteko balio duena unibertsitatera, eta balio ez duena Lanbide Heziketara, alegia, gazteak bi mailatan banatu ohi dira, ikasle onak, inoiz unibertsitateko titulua eta etorkizun oparoa izango dutenak eta ikasle txarrak edo ikasteko balio ez dutenak eta etorkizunean lanbide bateko langileak baino ez direnak izango. Hortik, gurasoen kezka umeak eskolatik nota txarrak ekartzen hasten direnean, nota hauek seme-alaben etorkizuna baldintza omen dezakete eta. Baina nire esperientzia bestelakoa izan da. Eskolan, nota eskasak ateratzen nituen, beti justu ibiltzen nintzen eta unibertsitatera joan aurretik ere azkeneko urtea errepikatu behar izan nuen. Egia esan, garai



“Nota eskasak arazo sakonago baten adierazle izan daitezke”

hartan hezkuntza sistema oso zurruna zen eta ikasle asko behartuak izaten ginen kurtsoak errepikatuz. Unibertsitatean ere, hasieran zailtasun asko izan nituen eta errepikatu nuen kurtsoa baina, azkenean lortu nuen karrera bukatzea azterketa asko egin ondoren. Nire klaseko ikasle eskasenetakoa izan nintzen. Titulua bai, baina ezagutza oso murriztua.

Urte pare bat geroago Kanadara joan nintzen eta han berriz unibertsitate-ra bueltatu nintzen. Zaharragoa eta helduagoa nintzen eta han irakasteko

sistema oso desberdina zen, oso motibatzailea egin baitzitzaidan. Ez zuen zerikusirik EHU bizitakoarekin. Notak ere jartzen zituzten, baina beste modu batera eta pizgarri modura, ez mugatzaile gisa. Han berriz, nire taldeko ikasle hoberenetako bat bihurtu nintzen, oso emaitza onak lortu eta bost urteren buruan doktore maila lortu nuen. Zergatik horren aldaketa handia?

Batetik, ikasketa sistema desberdinak bizi izan nituen Euskal Herrian eta Kanadan, bestetik motibazio gutxi aurkitzen nion nik ikasteari Euskal Herrian eta motibazio handia berriz Kanadan eta, bestetik, eta agian garrantzitsuena, nire egoera psikologikoa. Ni ez nintzen kontziente, baina umetan asko sufritzen nuen ikasketa sistemarekin eta nire gurasoen jarrerarekin, ahaztuta sentitzen bainintzen, ez ikusia. Bost anai-arrebetak zaharrena naiz, aita lanbide bateko langilea eta ama etxekoandrea. Ez nituen inoiz nire ondoan ikasketekin ni laguntzen, interes bakarra jartzen zuten notetan eta honetan ere gutxi, ozta-ozta gaintzen bainuen eta, antza, hori nahikoa zen. Notak berak ziren motibatze modu bakarra garai hartan.

Umeak eskolatik nota txarrak ekartzen baditu, arreta berezia jarri beharko dugu. Agian, garai txarra ari da pasatzen, etxean edo eskolan, edo beste zerbaitetik egoera zail bat ari da bizitzen. Horrelakoetan eta, batez ere, etengabekoa denean, umeak laguntza behar du eta eskolan zein gurasoek ematen diotena ez bada nahikoa, laguntza profesionalera jo behar dugu. Kontsultan landuko da orduan umeari gertatzen zaiona. Maiz, baina ez beti, etxeko egoerarekin du zerikusia eta, gurasoek zeresan handia dute umearen nota txarretan. Arrazoiak arrazoi, umeen nota eskasak arazo sakonago baten adierazle izan daitezke eta baliagarriak arazo hori aurkitzeko. Gaitz-erdi, orduan.



Haiena da hitza

Bainu denboraldia amaitu berri bada ere nahiz eta ia udaren jarraipena ematen duen, hobeki esateko, udaran loratu den burkiniaren eztabaidak udazkenean ere badakar segida. Eztabaida ez da itzali, eta oraindik protagonistei ez zaie ahotsik eman, honetan guztian lehenbiziko hitza eduki behar luketen emakume musulmanei.

Berriro ere botere gune maskulinoetan eztabaidatzen eta erabakiak hartzen ari dira emakumeen eskubideen inguruan. Ez da kasualitatea debekua onartua izan den hirietan – Niza eta Cannes – alkatea eta gobernu-taldea gizonez osatuta egotea; nahiz eta emakume izate hutsak ez lukeen halako neurririk saihestuko. Debekuaren aldeko alderdiek, emakumeen askatasunaren izenean hartu dute erabaki hau, inoiz ez dutenean matxismoaren kontrako erritiko aldaketan aldeko apusturik egin.

Jokoan dagoena, ordea, emakumeen jabekuntza da, askapena. Hautatzeko eskubidea izatea. Horrek esan nahi du edozein alorretan hartzen diren erabakiak hautatzeko eskubidea izan behar dutela oinarri eta nola ez, kalera eta uretara, nahi bezala jantzita atera ahal izatea, nahi hori sinesten duzun Jainkoaren arabera bada ere. Izan



“Debekuaren aldeko alderdiek, emakumeen askatasunaren izenean hartu dute erabakia”

ere, han eta hemengo ahoak bete dituen eztabaidak ez ditu feminismoak aldarrikatzen dituen esparruak ukitu.

Manuel Valls Frantziako Lehen Ministroaren antzeko jarrerak bete dituzte eztabaidaren aho gehienak. “Emakumeen esklabotzan oinarritutako eta gizartearen aurkako proiektu politiko-tzat” ulertuta jo zuen debeku neurria-

ren aurka. Frantziak askatasuna eta ahaidetasuna ditu hiru zutabetako bi, baina erakutsitako jarrerak gehiago dinamitatu ditu ardatz horiek.

Gutxiengo erlijiosoak kriminalizatu ditu beste behin ‘burkinia’-ren aurkako debeku legeak. Munduko botereen interes sozioekonomikoak ardatz hartuta, gizarteari sinetsarazi nahi dioten beldurraren zati da ‘burkinia’. Hau da, eraso terroristen oinarria islamismoan dagoela eta ‘burkinia’, azken batean, arazoa sustatzen duen tresna bat baino ez dela. Ideia hau iritzi publikora jaurti dute islamofobia elikatuz eta uste bat dogma bilakatu dute, jendeari beldurra eta ez direnak sinetsaraziz. Beste behin gurea behar ez lukeen hitza eta erabakiak jarri ditugu arrotz zaizkigun gaietan, protagonistak entzun ere egin gabe.

‘Burkinia’-ren eztabaida erdigunera ekartzea aurrerapausoa da, beti ere feminismoaren norabidean jotzen bada. Gaia testuinguruan kokatu, iritziak partekatu eta beharrezko diren neurriak adostu behar dira. Zilegi ez dena eztabaida interes politikoen arabera bideratzea da, kontuan hartu gabe horrek dakartzan ondorio larriak. Eta horretarako, haiena izan behar du hitza.

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
[azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...]

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
[prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...]

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta
Diario de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·

PATXI GALARZA

Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



Haize-Txulo: gorritiarren biltoki

40 urte bete ditu Gorritiko Haize-Txulo elkarteak. Joan den hilean bazkari batekin ospatu zuten urteurrena eta aitzakia horrekin lehen urte haietako kontuak ekarrarazi genizkien gogora.

Haize-Txulo du izena gorritiarrek herrian duten elkarteak. Elostia eta Santa Barbara mendien artean dagoen mugartearen izena jarri zioten. 40 urte pasa dira orduetik, 1976. urtean, herritarrek auzolanean elkarteak sortu zutenetik. Aitzindariak izan ziren gure eskualdean, inguruko herrietan oraindik ez baitzen elkarterik.

Herriko Eskol-etxean egin zuten elkarteak. Garai batean Kontzejuko batzarrak antolatzen ziren lekuan. Felipe Goikoetxea: *“Hau leno Batzarre-sala huen, hortako bakarria ibiltzen zien ta behian kartzela”*. Larraungo Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren oniritziarekin, lokala egokitu eta elkarte gisa erabiltzeko baimena jaso zuten Kontzejuaren eskutik.

Geroztik hamaika otordu, tertulia, mozkorraldi eta arratsalde pasa bizi izan dituzte bertan. Festetan ere elkarteak eta ondoan zuen ukuilua omen zen festagunea. Gazte kuadrilla handia zegoen garai hartan herrian eta denek parte hartzen zuten elkartetik antola-tzen zuten barran. Urtezaharrean ere afaltzeko elkartzeko omen ziren bertan. Noiznahi egiten omen zituzten gaztain jateak, afariak eta parrandak. Tarteka baita inprobisatutako dantzaldiren bat edo beste Joxe Angel Bernal akordeoilariarekin. Ez zuen egun berezia izan beharrik elkartean mugimendua izateko. Juan Joxe Goikoetxea: *“Gazte koadrille haundie zeon ordun ta oso ongi ematen giñen. Igandetan pilotan aittu ta geo eguerdin honea etorri ta kaja biterrak azkar joaten zeen. Ta atxalden Malloata dantza!”*.

Kategoriako elkarteak izanik ezkutua ere behar zuen izan. Lehenik Xabier Egaña frantziskotarrak egin ziren bozetoa eta ondoren Albizturko Rikardo Etxeberriak egin zuen gaur egun elkarteko paretan zintzilik dagoen egurrezko eskultura.

Haize-Txulon bertan sortu zen ere herriko sokatira taldea. 1977 inguruan hasi ziren eta pare bat urtez zenbait herri-tako taldeen kontra saioak egin zituzten.

Felipe Goikoetxea: "Aldazkoan kontra, aisoiarran kontra ta hola aitzen giñen. Ordun *Larraun Bat* ospatzen zen eta eun harekin e joaten ginen sokatiran aitzea ta Egian eta Atotxan e izandu giñen. Ez ginen gehiegi prestatzen, momentue etortzen zenen tira! Ta bale!".

Baina Peppermintarekin eta Coca-Colarekin egindako kuba-libreen garai hura joan zen eta gazte berriak sartzen joan

dira, Oihane Balda azkena. 19 urterekin aurten egin da elkarteko bazkide. Gaur egun 47 bazkide dira.

40. urteurrena behar bezala ospatzeko bazkaria egin zuten joan den azaroaren 6an Haize-Txulon. Elkarteak goraino beteta, han elkartu ziren zahar, gazte, gizonezko eta emakumezko. Baina aurretik elkarrekin izan duen ibilbideaz aritu ginen sorreran parte hartu zuten zenbait bazkiderekin.

"Kasik launbetero biltzen ga apaltzea"

Joxe Mari Ezkurdia, Joxe Miel Beristain, Juan Joxe Goikoetxea, Pako Balda eta Felipe Goikoetxea Haize-Txulo elkarteko bazkide dira eta ongi ezagutzen duten bertako martxa.



Joxe Mari Ezkurdia, Joxe Miel Beristain, Juan Joxe Goikoetxea, Pako Balda, eta Felipe Goikoetxea,

Elkarteak egitearen ideia nondik sortu zen?

J.J. Goikoetxea: Ordun Felipe Goikoetxea huen herriko alkate. Tabla bakarrik gelditzen zen irikie ta ondoren hue de itxi in zuen.

Ezkurdia: Garai baten hiru taberna bazien, Tabla, Pedronea eta Mikeleone. Beño ordureko bakarra zegoan irikie ta gutxi xamar. Orduko, soziedade itteako, itten giñuzen tabernan aparik eta kostille janak eta... Beño batzuk Donostian bizi zela ta han bazaudela soziedadek eta pixkoat beire hasi ta hortik sortu zen... Koadrilleko kontuk!

Hasieratik etxe honetan sortu zenuten elkarteak?

Ezkurdia: Bai hementxe in giñun.

J.J. Goikoetxea: Etxe hau Kontzejuna zen, garai beten kartzelatako ibiltzen zuen behiko partea. Ta herriri eskatu zitzaion elkarteak hemen itteko.

Beristain: Hasieran asmoa zan aparte egitea, baino hortako "moneys-moneys" falta zan!

J.J. Goikoetxea: Betikoa!

Beristain: Biltzen hasi giñen eta Kontzejuri eskatu eta Udalaren baimena ere lortu zan eta euro baten truke, erabilera baimena eman ziguten, ez jabetza, ez-tzan salerosketa izan.

Nola egokitu zenuten lokala?

J.J. Goikoetxea: Auzolanen, denan artan.
Beristain: Hemen zien lanen apezka, herriko attonak eta denak!

Elkarteak egitearen ideiak herrian desadostasunak sortu al zituen? Kontra zegoen herritarrik?

J.J. Goikoetxea: Elkartan sozio sartu e-tzeenak bazeen, beño kontrakoik ez.

Ezkurdia: Batzuk etzien sartu, giro hortakoak ez zielakoz.

Beristain: Gaina nahi zuna etorri zeiken, ez zeon horren eragozpenik zentzu hortan, etorri nahi zuenantzako hor zegoen. Eta herriko gizonezko gehienak



Periko Alduntzin, Xatur Abruza, Manolo Perez, Periko Gastesi, Fermin Berekoetxea.
Behean: Joxe Angel Gastesi, Felipe Abruza, Joxe Mari Ezkurdia eta Fermin Gastesi.

sartu zien, emakumeik ez, emakumeak ordun etzien sozio.

J.J. Goikoetxea: Beño ordun sartu etzienak e geo, ondoren, sartu zeen.

Emakumezkoak zergatik ez ziren momentu hartan elkarteko bazkide egin?

Beristain: Bazan holako mentalidadea, "soziedadea gizonezkoana". Inguru guzian ere hala ziren elkarreak, denak gizonezkoenak.

J.J. Goikoetxea: Geo gaztek hasi zeenen, emakumek e sozio in zeen.

Noiz hasi ziren bazkide egiten?

Beristain: 2000. urte ingurutik honoa. Sartu sartzen ziren, baina elkartekide bezala ez. Horren aurretik, bazkide zirenen emazteak nahi baldin bazuten erdia ordainduz elkartekide izateko aukera eskaini zen eta batzuk horrela hasi ziren. Eta horrek alaitasuna eta saltsa ekarri du.



Felipe Abruza eta Joxe Angel Bernal dira sokatiran aritzen zirenetako batzuk.

Eta hasiera hartan bazkide izateko zeintzuk ziren bete beharreko baldintzak?

Beristain: Baldintzaik etzeon, herritarra izatea, edo herritar batekin ezkondua izatea, ni bezala. Ni ez naiz hemengoa eta ni bezela dexente zeuden, hamar izango ginen kanpokoak.

Lehen urte horietan zenbat bazkide zineten?

Ezkurdia: 40 eta piko.

Elkartea auzolanean prestatu zenuen, baina zenbat denbora behar izan zenuen?

Beristain: Udazkenean hasi eta udarako bukatue zan. Asteburuetan, biltzen ginen denak.

J.J. Goikoetxea: Lanbete atsaldetan ta jai eunetan ta...

Ezkurdia: Ofizioa zuenak haik itten zittuen ofizioko lanak ta bestek laundu ta...

Beristain: Bertan zeon apezta izan zen horretan sutsuena, Juan Martin Arrizibita.

J.J. Goikoetxea: Ta jende edadetue, ne atte ta hoik denak e sartu zeen, ta armoni polittien aitzen giñen. Sei o zazpi bazien jubilatutakoak.

Beristain: Ta haik izan zuten netzako garrantzi izugarria geoztik izan ez dana. Haik jubilatuta zeudenez, goizetan honoa etortzen zien beren haiketaketoxoa edo tertulia egitera. Eta oain berriz, azkeneko 20 urteotan jubilatua oso gutxi sartzen dira elkartean.

Eta hori zergatik dela uste duzue?

Ezkurdia: Aldatu in da gauze, eueldie bezela, aldatu in da.

Beristain: Haik aurretik ohitura zuten herriko tabernan elkartzeko eta jokun aitzeko, txikitoak hartuz eta soziedadeakin jarraipena izan zuen ohitura horrek, beño hain ondorengoak ez.

J.J. Goikoetxea: Ni gehiena goatzen naitzena biñipin, mezatik atea ta nola biltzen zeen Mikelenen o Pedronean. Ta gero hau sortu zenen, honoa etorri ta atune piperrakin txiki-txiki in ta ardoa edan ta hemen denak koadrillen.

Eta sukaldean nor aritzen zen?

Ezkurdia: Abilidade pixkoat zuenak.

Beristain: Beti izaten da bakarren bat aprobetxatzen duguna, Nicolas Alduntzin ibiltzen zen sukalden...

Ezkurdia: Periko Gastesi re aitze huen... Ta Joxe Dorronsoro...

Beristain: Azkeneko urteotan Pako Bernal. Horren koadrille larunbatero biltzen da eta harek jartzen die afarie. Oso sukaldari ona daukate!

Garai batean festetan ere mugimendu handia izaten zen elkartean...

Beristain: Eraikin osoa Kontzejuarena zen, hemen zegoen kontzejua, eskola... eta behean ikuilua hutse eoten zen beti eta Kontzejuk festetan utzi itten ziun. Festak han antolatzen zien. Han mostradorea jartzen gendun eta soziedadetik eskaintzen gendun zerbitzu osoa. Sekulako mugimendua izaten zen.

J.J. Goikoetxea: Bazkarik, aparik eta bokadilloak ematen genituen nahizunantzat.

Ezkurdia: Beste garai batzuk zien.

J.J. Goikoetxea: Saltsa haundie armatzen zen ta pesta onak izaten zeen hemen. Lau euneko pestak.

Felipe Goikoetxea: Ordun itten zeen euneko talde bat bost o sei sozioakoak ta haik eun guzie, 24 orduz, zerbitzue ematen ibiltzen zien, lanen.

Beristain: Ostiraletan ta larunbat gaue-tan, goizeko zazpik arte itxi gabe.

Balda: Kanbioa etorri arte tira!

Beristain: Goizetan jendea bialdu ezinik, geo lota juteko. Ikuilua bete-betea egoten zan, festetan ordun jende asko ibiltzen zan.

Eta barra jartzeaz gain otorduak eta ogi-tartekoak ere eskaintzen zenituzten...

J.J. Goikoetxea: Denetik eta ordu guzietan. Bazkarik, aparik, gosarik...

Beristain: Ta kuba-libreak "a tutiplén"! [Kar, kar, kar]. Hemen gezurra dirudi nola gu bezalako jendea sekule santan zerbitzatzan ibili gabeak izanik mostradorean ze saioak egiten genituen. Bat zerbitzatzan, beste atzetik behar zena ematen. Izugarria zan, ikusgarria!

Estiloarekin?

Beristain: Ez, estiloik etzeon, baino lana...

Fundamentuarekin...

Beristain: Bai. Askotan jende gehiagori otorduak emateko lekurik gabe. Ta sekulan ez gendun izan kobratzeko problemarik. Jendea diruarekin etortzen zan. Hemen 700.000 peztatik gorako irabaziak izan dira.

Baina gero festak frontoian antolatzen hasi ziren...

Beristain: Bai. Etxearen azpitik erre-karen bat pasatzen omen da eta etxea



pixkoat muittu in zan eta oain dala 20 urte inguru, Kontzejuk etxea konpondu eta saldu in zun eta ikuilua itxita geldittu zan. Geroz frontoian egiten dira. Baino soziedadeantzako aldaketa haundie suposatu zun horrek.

J.J. Goikoetxea: Leku gutxiago dugu orain.

“Goizetan jendea bialdu ezinik ibiltzen ginen”

Orain zenbat lagun sartzen zarete elkartean?

J.J. Goikoetxea: 35 bat laun...

Beristain: Gaur 43 inguru izango gea. Baino bertan sukaldatu nahi baduzu beheran lekua behar da. Gaur kanpotik ekarriko dugu janaria.

Gaur egun noiz biltzen zarete elkartean?

Felipe Goikoetxea: Lanbetetan behintzat taldetxo bat badu beti fijo. Dozen erdi, zazpi, zortzi, asteburur arabera, beño kasik lanbetero biltzen ga apaltzea.

Beristain: Eta astez, goizetan, ia egunero, bertan bizi diren emakumeak kafetxo bat hartzeko elkartzen dira hemen. Pare bat orduz egoten dira hemen ben kontutan eta horrek elkarteari bizia ematen diote.

F. Goikoetxea: Aitzakia horrekin gizonak e tarteka etortzen dee...

Gertatu izan diren anekdotak edo xelebrekeriak ere izanen dituzue kontatzeko...

Ezkurdia: Anekdotak bat hemen izanduz behin... Pestakoan zen hoi re! Kriston batxui zopa eltzea in ta herritar batek txuleta bat sartu zun han sekuleko hezur kozkorra. Ta txuleta hue in zen egosi earki ta gero atea zun, plateren jarrri ta earki jan zun batxui zopan indako txuleta. "Karne de bufalo!" esaten zun gero! [Kar, kar, kar].

Mikel Berekoetxea: Nik e bauket oain gutxiko bat... Afari bat in zuen hemen pestetan, larunbat gaben, ta goizalde gu ya goseik giñen ta honea etorri ginen. Beño hemen deuse ez giñun gosaltzeko. "Eonen dok hemen zeoze!" esan zun batek ta labea iriki zun ta sobratutako ollaskoa zegoan. "Iñe zeok ta jan beharra zeok!" ta dena "limpio!" batzuk hotzean ta beste berotuta. Eta hurrengo eunen etorri zien ollaskoan bille ta ollaskoa falta! Beño lokalizatu ziutean seittun ta geo ordañe eman beharra.

Eta gaur nola ospatuko duzue 40. urteurrena?

Balda: Janez ta edanez, lasai earren. Barrreneako giro earra dau ta!

Ezkurdia: Bi bertsolari re battu Julio Soto ta Iker Zubeldia, gero akordeoniste re bai ta ongi!



56ko kintoek 60 urte bete dituzte

Telebista eta fregona zein urtetan sortu zen ederki dakite 1956an jaio zirenek. Joan den urrian Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko 56ko kintoek 60. urtemuga ospatu zuten Berueten. Eguerdian meza entzun ondoren herriko ostatuan bazkaldu eta arratsaldea 60ko hamarkadako abestiak dantzatzuz pasa zuten. Arg: Ricardo Bosch.

Mailope Kantuan udaberrian izanen da

Abenduaren 17an zen egitekoa Mailope Kantuan jaialdia baina udaberrira atzeratzea erabaki du Mailopeko zuzendaritza taldeak. Herriz herri dagoeneko kontzertuan parte hartuko duten taldeak osatzen hasi dira. Oraindik ez baduzu izenik eman, deitu 680506102 telefono zenbakira edo idatzi mailope@labrit.net e-postara.

Euskararen erabilera familian hausnartuz

Araxes Ikastetxeko Euskara Batzordeak, euskararen erabilera etxeetan sustatzeko helburuarekin, abenduaren 3tik aurrera "EUSKARAREN KRISEILUA" egitasmoa jarriko du.



Kriseilua izango da euskararen sua ez itzaltzeko erabiliko duten tresna. Horretarako, Kriseilua ikasleen etxeetan ibiliko da txandaka. Egun horietan euskarak familian duen tokiaz jabetzeko galdetegia eskainiko da eta ondoren, bakoitzak bere bidea egiteko aukera izango du.



Badator Araitz-Beteluko Kultur Astea

Abenduaren 3tik 10era hainbat kultur jarduerak izanen dira Betelun eta Araizko herrietan. Euskaraz Bizi Taldeak egitarau zabala antolatuko du, gaztetxo nahiz helduentzat. Ikusi egitaraua Agendan (31. orr.).

Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Ederbidea proiektuaren nondik norakoak aurkeztu dituzte

Bizikleta bidezko mugikortasuna sustatuz tokiko garapenari bultzada emango dio EDERBIDEA proiektuak. Hala nabarmendu zuten joan hilean Plazaolan egin zuten aurkezpen jardunaldian.

Proiektuak Nafarroa, Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoak elkartuko ditu eta Europako bizikleta-bide handietan integratzen lagunduko du. Hala Bidasoa eta Plazaola bide berdeak lotu egingo dira eta Plazaola bide berdearen kasuan Iruñeraino iristea da helburua.

Besteak beste turismoan, tokiko garapenean eta ingurumenean izanen duen inpaktuaz aritu ziren jardunaldietan parte hartu zuten gonbidatuak.



Militarrak Larraunen eta Lekunberrin

Sustoren bat edo beste eta haserrea sortu du askorengan, joan den hilean Lekunberri, Leitza eta Larraungo zenbait herritan Espainiako armadako militarrek hara eta hona ikusi eta gero.

Lekunberri eta Larraungo EH Bilduko alderdikideek mozioak aurkeztu dituzte dagoeneko bai Lekunberriko eta bai Larraungo Udaletan. Nafarroako EH BILDUK, Geroa Baik, Ahal duguk eta Izquierda-Ezkerrak ere Parlamentuan adierazpen instituzional bat aurkeztu dute Leitza, Lekunberri eta Larraunen Espainiako armadako egindako ariketa militarrek salatuz.

Antza Udalek ez zuten euren presentziaren berririk eta ariketa militar horiek egiteko baimen eskaerarik jaso. Lau alderdien ustez, halako egoerek bake eta bizikidetzarako bidea oztopatu baino ez dute egiten.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL - HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



Garaian garaikoa, bertakoa eta ekologikoa

- 16 -



Iurgi Goikoetxea eta Oihana Iraola Leitzarrak Intzako Orixenea base-rrira bizitzera etorri berriak dira. Lurra landuz bizimodua ateratzea dute helburu. Baserriko produktuak ekoiztu eta salmenta zuzena eginez hasi dira.

Noiz etorri zineten Intzara bizitzera?

Iurgi: Martxoan etorri ginen bizitzera ta aurreneko hilabetetan, uztaile arte, loredendan lanen seittu nun, beño gero ikusi giñun lan haundie zeola hemen ta hue utzi ta honea.

Baina baratzea egin eta abereak jartzeko asmoarekin etorri zineten?

Iurgi: Bai.

Oihana: Iurgik aspalditik zun oilasko ekologikoak hazten hasteko ideia eta urtarrilen lurrek bilatzen hasi ginen alokairun hartzeko, Alegi alden, Ituren ingurun... Oilaskoak ekologikoan hazteko lur eremu haundie behar da, oilasko bakoitzeko lau metro karratu eskatzen due ta bagiñekin lurrek beharko giñuzela. Eun batetik bestea Iurgiri dendan esan zioan Intzan bazela baserri bat lurrekin alokairun. Ikustea etorri giñen ta gustatu in



zitzaiun bi beharrak asetzen zittelako, lurrek zittun eta etxebizitze bertan. Hola animatu giñen.

Eta loradenda utzi eta baserrira...

I: Nik burun aspalditik neuken kontu hau.

Zenbateko lur saila erabiltzen duzue horretarako?

I: Baserri honek lur asko dauzke. Oilaskoatako ta oiloatako 6.000 metro ta baratzantzako 4.000 metro karratu erabiltzen dittu.

Beraz, oilaskoak hazteko ideiarekin etorri zineten...

O: Bai, beño erabaki giñunen honea etortzea, ideia aldatu in zen. Aurkittu giñun baserri bat ukuilu haundi batekin eta lur pile batekin. Oilaskoaz gain, lur hoiri erabilera emateko bes-telakoak ekoizten hasi ginen. EHNE Bizkaia sindikatukoek asko laundu diute eta beaiek dibertsifikatzea proposatzen ziu ten.

I: Betiko baserri bat.

O: Hoi da. Animali mota asko, beño kantidadade gutxi. Ta ordun baratza ittea erabaki giñun, oilo batzuk re badauzkeu, ahuntzek, txerrik, konejuk, intxaurrek... Denetatik!

Eta hori guztia nola saltzen duzue?

O: Baratzako barazkikin itten dittu ateroko barazki saskik, arraultzekin edo gabe, eta oilaskoak hutsean ontziratuik saltzen dittu, salmenta zuzenakin, kontsumo taldetan nahiz partikularrai. Eta ostiraletan Leitzeko azokara joaten ga.

Zein da zuen salmenta eremua?

I: Araitz eta Leitzaldea.

Eta eskaerak nola jasotzen dituzue?

I: Telefono bidez, Whatsappez edo Facebook bidez. Gero eune jartzen du ta etxez etxe banatzen joaten ga, bezeroai etxeaño eramaten diu.

“Iritsi giñenen ez giñun imajinatuko hola hartuko gintuztenik”

Garaian garaiko barazkiak izaten dira...

O: Bai.

I: Oain egie esan, probak itten ai ga. Guk ez giñekin Intzan egindako batzan zerk funtzionatuko ote zun ta zerk ez. Aurten probatzeko denetatik jarri giñun.

O: Haizea daukeu hemen arazoik haundina. Pixkanaka ikusten eta ikasten ai ga eta ea negue nola etortzen den, ez dakiu negu guzin barazkik eskaini ahalko dittun. Momentuz ez do izotzik in ta pozik gaude!

Txerriak eta ahuntzak ere jarri dituzue...

I: Txerrik printzipioz etxeako jarri giñuzen.

O: Eta ahuntzek gehien bat lurrek garbitzeatik, urte askoan erabili gabe zeuden eta oso zikiñek. Zortzi ahuntz dauzkeu ta eguberritako espero du antxumek saltzea.

Oilaskoak ekologikoan hazteak zer du bereizgarri?

O: Alde batetik eun kopurue. Guk eun bateko txitak ekartzen dittu eta ekolo-

gikoan hazteko arautegiaren arabera, gutxienez 84 eun behar dittue. Hoi da alde nagusiena, ekologikoan hiru hila-betetan hazten die eta oilasko konbenzionalak berriz hilabete baten. Bes-tetik, oilasko bakoitzeko kanpoan lau metro karratuko lur eremua eukitzea eskatzen due.

I: Ta barrenen e toki haundigoa behar due.

Eta elikadura ekologikoa...

O: Bai, belatsoko belarraz gain, eh-neko ehun zereal ekologikoz hazitako oilaskoak die eta ezin die medikatu, ez antibiotikoik, ez hormonaik eta ez inolako produktu kimikorik erabili. Gaixotasunak saihesteko eman ditteke baratxurie, ezkaifusioak...

I: Argi artifizialik e ezin diozo jarri. Negin hemen oiloak arraultze gutxio jartzen due ta oilaskoak gutxio jaten due. Ziklo naturala errespetatzen da.

Txitak iristen direnean zein izaten da jarraitzen duzuen prozesua?

I: Aurreneko 20 eun inguru, pixkoat lumatu arte ta indartu arte, barrenen eon behar due eta beroakin, 30 gradu ingurun.

O: Guk gasazko berogailu bat daukeu.

I: Eta aurreneko 20-25 eun hoin ondoren ja kanpoa ateatzen hasten die.

Eta sartu eta atera, aske ibiltzen dira?

I: Bai, goizetan leihoak irekitzen zaizkia ta ja libre sartu edo ateatzeko eta gaben berriz itxi itten dittu. Azeringatik, bazpare.

Eta oiloak eta oilaskoak denak nahasturik egoten dira?

I: Ez oiloak alde batetik denak elkarre-

elkARRIZketa:

“Azken urteotako ereduak aldatuz gero posible da baserriaz bizitzea”

kin eta oilaskoak adinaren arabera banatuk daude.

Lotetan banaturik?

O: Bai hiru lotetan. Txitxe txikiak toki baten, hilabete ta piko daukeanak beste baten eta hiltzera dijoaztenak beste baten.

Oilaskoak behin hiru hilabeteak betetzen dituztenean, hemen bertan hiltzen dituzue?

I: Bai. Oilaskoak etxan hiltzen die, garbittu, hutsean ontziratu ta zuzenen saltzen die.

Eta oilasko ekologikoen eskaria ba al dago inguruan?

I: Bai, uste dena baino haundigoa. Jendea geroz eta kontzientziatugoa da, nahiz ta lan asko dau itteko oaindik.

O: Badittu bezeroak osasun arazoangatik produktu ekologikoak jateko gomen datu dioanak, edo besterik gabe kontzientziaturik dagoen jendea eta beste



Ekologikoan, oilaskoak eta oiloak elikadura ekologikoarekin eta euren ziklo naturalak errespetatuz hazten dira.

modu batera kontsumitzeko erabakia hartu duena.

Oiloei ere elikadura ekologikoa ematen diozue?

O: Bai, eta arroltze itten duenen ongi ta ez duenen itten ez due itten. Oain dela aste batzuk eondu giñen 50 oilokin ta hiru arroltze baino ematen etzuela.

I: Hoi ziklo naturala da.

Untxiak ere badituzue...

O: Bai. Baino Espainian ez dao arautua konejuk ekologikoan hazteko. Guk kaiolatan dauzkeu, baino elikadura ekologikoa ematen diu. Barazkik ta pentsu ekologikoa.

Leitzakoak zarete, baina baserrikoak ez...

O: Ez, bik atton-amonak baserrikoak dauzkeu, beño gu ez. Beti gustatu izan zaiu baserriko bizimodue eta askotan pentsatu izan du horren inguruan.

Eta nola ikasi duzue baserria gobernatzen?

I: Baserrie zuzenen ez, beño zeharka ezautu du, eta gero asko irakurriz eta galdetuz.

O: Aholkularitza ta launtze haundie jaso du EHNE Bizkaian eskutik.

I: Ta hortik aurrea, beste baserriarrai galdetuz, saiaturiz eta gaizki iñez askotan.

“Barazki ekologikoak ez dira garestiagoak”

Eta oraingoz zer moduz moldatu zarete?

O: Ongi, gustora gaude.

I: Oso pozik.

Bezeroak nola erakarri dituzue?

O: Facebookeko orri bat sortu giñun, kartelak jarri, eskuorrik banatu, WhatsApppe informazioa zabaldu, beño batez e ahoz-ahokoakin. Gure ingurukoak enteatzen joan zien baserri batea joan giñela ta gure proiektue kontatu ondoren batzuk bezero bihurtu die. Oso inguruko bezeroak dauzkeu, ezautzen gattuenak eta gure proiektun sinisten duenak.

I: Adibidez azoka joatea lagungarrie izan da hortako.

Eta ez duzue pentsatu beste herrietako azoketara joaten hastea?

O: Momentuz ez. Guk kriston batza in giñun ta udaberrin barazki gehiegi giñeuden ta aurrea atetzeko Leitzeko azokara joatea pentsatu giñun eta hor leiho bat bezela ireki zaiu. Eskarie badaola ikusi du, jendek produktu ekologikoak eta bertako barazkik nahi dittola.



Momentu hontan ez du barazki gehiegi sobran, dauzkeun eskarikin eta Leitzeko azoka joateko juxtukoa.

I: Probatzen ai ga, ikusten ze barazkitan daon eskaera haundigoa... Hurrengo urten ikusikou gehixe in edo ez.

Momentu honetan biok ari zarete baserrian lanean?

O: lurgi ehuneko ehunean ai da hemen, beño nik hemendik kanpo re lana ittet.

Eta baserriaz bizitzerik bada?

I: Bai, filosofia aldatuz gero bai. Prozesu guzie bukaeraino zerorrek landu behazo.

O: Horrek aukera ematen dizo prezio duin bat jartzeko zure produkturi, zure lanari balioa emanez, biden galtzen utzi gabe. Bestela bitartekariak nekazariak beño gehio irabazten due.

I: Eta ez daukezo dependentziarik. Gaur eungo baserrian kalteik haundina hoi baita, enpresa haundin menpe daudela eta beraiek jarritako prezioan menpe.

O: Bestalde, ikusten ai ga dibertsifikatzea beharrezkoa dela eta pixkeka hasi ga. Gu ez ga inbertsiotan sartu. Hasieratik erabaki giñun diru-laguntzetan eta inbertsioetan ez ginela sartuko. Azken urteotan baserriar askok seittu duen bidetik aldendu eta bestelako eredu bat seitzera erabaki du. Diru-laguntzetan ta inbertsiotan oinarritutako eredu hoi, produktu bakar baten ekoizpenean oinarritutako eredu hoi, agortzen ai dela ikusten ai ga ta baserriarrik ittutzen ai diela. Horreatik beste modu batea iñez keo posible dela uste du. Ta egie da ez dela erraxa, baserriarra izateaz aparte, lan asko in behar dozolako, komertzial lanak, banaketa lanak...

Eta herrian zer moduz hartu zaituztete?

I: Oso-oso ongi, iritsi giñenen ez giñun imajinatuko.



Salmenta zuzena egiteko erabakia hartu dute Orixenean.

O: Hasieran kriston sorpresa hartu giñun ikusita herrin jende gaztea bazeola eta gauz asko antolatzen ziela, giroa daola. Hasieratik oso harrera ona in diute, ta ikusi zuenen lanen ai giñela oaindik hobe. Etorri giñenen hemen itxittu guzik prestatzen ikusten ziutean ta galdetzen ziutean: "Ze ai zatea?"

I: Ez zuen ulertzen oso ongi, itxittu ttikik ikusten zittuelako eta etzekien zertako.

O: Nik uste pentsatzen zuela: "Hok ez due ideik e!" [Kar, kar, kar].

I: Guri esaten ziutean hau etzela baratza tokie, ikusi du hemen itten dela, ta oso ongi gaina.

Ekologikoa garestia dela esaten da... Hala al da?

O: Gaur egun ohittu ga produktuk daukean balioa baino merkego kontsumitzea, hau da produktu hori ekoizteak duen kostua baino merkego erosten dittu. Eta beste alde batetik, adibidez baratza ekologikoan ittea, ez da garestigoa, ta barazki ekologikoak ez die garestigoak. Ez da, herbizidarik, pestizidarik eta halako produkturik erabiltzen eta horrek merketu egiten du ekoizpena, nahiz eta baratza ez den horren pro-

duktiboa izaten eta berdine lortzeko gehio in behar.

I: Beño saltzeko garaian, guk saltzen dittun barazki barazki dendako prezio berean saltzen ditugu. Egia da oilaskoa adibidez garestiagoo dela.

O: Beño kontu hartu behar da oilasko hori nola ekoiztu den. Nik uste azken urteotan kontsumitzeko erak pille bat aldatu diela. Gaur egun jendea asten lau aldiz oilaskoa jatera ohittuta dao. Lual kontsumitzeko moduak aldatu behar die. Asten bitan haragie janez, baino han beazon hoi kalitatezkoa izan dadila. Oilaskoa ekologikoan haztek kostu haundigoo dauke, hoi argi dao. Hilabete baten haztea hiru hilabetetan haztea beño merkegoa da. Beraz, produktun arabera, batzutan garestigoa da eta beste batzutan ez.

I: Oilaskoa garestigoa da, beño ez dao aldeik oilasko konbentzional bat jan edo ekologikoan hazitakooa jan...

Eta jendeak badaki hori baloratzen?

I: Bai, bai, erosi diutean guzik nabarittu due.

Harremanetarako:
Orixenea baserria (Intza)
670 258 202 / orixeneabaserria@gmail.com





Leiho bat munduari begira

*Guk, Ibarberri eskolako laugarren mailako ikasleok, arbel digitala behar dugu. Gauzak erreza-
go egiten direlako, lanak egiteko, dantzatzeko, kantak ikasteko, pelikulak ikusteko, informazioa
topatzeko eta guk egiten ditugun lanak konpartitzeko beharrezkoa delako. Orain arte beste gela
batzuetara joan behar ginen arbela behar genuenean, baina Udaleko aurrekontu partehar-
tzaileetan proiektu bat aurkeztu dugu dirua eskuratu eta gure geletara arbel digitala ekartzeko.*

Lantoki eta bulego guztietan ordenagailuak eta proiektoreak daude, baina gure geletan ez. Adibidez, aurten Ibarberri Televisión Noticias egin dugu. Albaolan (Pasaian) ikusi genuena eta San Juan baleontziari buruz ikasitakoaren bideoak egin ditugu, baina ezin ditugu ikusi arbel digitalik ez dugulako. Eta laugarren mailakoek lortu nahi dugu.

Guk arbel digitala lortzeko proiektu bat egin dugu. LEHIO BAT MUNDUARI BEGIRA du izena. Tailerretan lan egin dugu laugarren mailako ikasle guztiak. Batzuk Irratigintza tailerrean egon dira, beste batzuk Bozeramaile taldean, Antolakuntza taldean eta Publizitate taldeetan. Gu Aldizkaria taldean gaude. Denok lortu nahi dugu jendeak gure proiektua ezagutzera eta guri botoa ematea.

Inkesta bat ere egin dugu 5. eta 6. mailako ikasleen artean. Jakin nahi genuen haien iritzia. Haiek badute arbel digitala. Guztira 67 ikasleri egin dizkiegu galderak. Horietatik 38 ikaslek uste dute oso erabilgarria dela, 28ri iruditzen zaie arbel digitala erabilgarria dela, eta batek bakarrik esan du ez dela erabilgarria. Beste galdera bat hau zen: "Arbel digitalarekin hobe ikasten dela uste al duzu?" 52 ikaslek esan dute baietz eta 9 ikaslek esan dute ezetz eta 6 ikaslek esan dute ez dakitela. Hirugarren galdera hau zen: "Arbel digitala beharrezkoa dela uste al duzu?". 32 ikaslek esan dute oso beharrezkoa dela eta 23k beharrezkoa dela.

Jendearen botoak gure alde izateko publizitatea egin dugu. Lehenbizi, logotipo bat asmatu dugu. Logotipoa marrazki bat



Isabelak, Unaiak eta Mariak arbela digitalaren proiektuaren berri eman digute.

da. Guk egiten ditugun lan guztietan agertzen da. Txapak ere egin ditugu herritarren artean banatzeko. Beste ikasle batzuek kartelak eta esku-orriak egin dituzte. Antolakuntza tailerrekoez esango diete kartelak non jarri, eta herriko plana erabiliko dute hori egiteko.

Bozera maile taldea zuzendariarengana joan ziren, mahaia jarri baino lehen baimena eskatzeko. Proiektuaren ezagutza zabaldu dute DBHn eta 6. mailan zeren eta 14 urtetik gorakoek botoa eman ahal dute. Agian datorren urtean parte hartu ahal dute. Irratigintzakoek elkarrizketak egin dituzte Aralar irratian. Bertso bat egin dute eta hori egunero abesten dugu. Entzun Aralar irratia!

Pasa den azaroaren 18an mahai informatiboa jarri genuen eskola atarian. Nahi genuen jendeari gure proiektua azaldu. Jende asko etorri zen gugana. Txapa asko egin genituen eta oso dibertigarria izan zen denei gure proiektuaren berri ematea.

Beste ideia batzuk ere bagenituen. Adibidez, su artifizialak egin nahi genituen, eta hegazkin batekin gure proiektuaren aldeko pankarta zabaldu nahi genuen. Furgoneta batekin eta bozgorailuekin herrian barrena joan nahi genuen. Ideia hauek ezin izan ditugu egin orain, oso zaila zelako hori antolatzea.

Udaletxera ere joan ginen, azaroaren 22an. Han alkatearekin eta langile batzuekin egon ginen hizketan. Udaleko gauzak kontatu zizkiguten.



Jendeak gure proiektuaren alde egitea espero dugu. Arbel digitala lortzea espero dugu. Guk lan hau idatzi dugu, eta ahalegin du gara zuei gauzak argi azaltzen.

Isabela, Unai eta Maria (Ibarberriko 4. mailako ikasleak)



Amaitu dira ba aurtengoak ere!

Gaintza eta Aldatzen sanmartinak ospatu zituzten joan den hilean. Euria eta hotza ez ziren etxean gelditzeko aitzakia izan. Aldatzen urtetik urtera geroz eta koadrila handiagoa biltzen dira etxez etxeko puska-biltzan. Herri-kirolak, mus txapelketa eta patata tortilla lehiaketa izan ziren besteak beste festetako ekitaldietako batzuk. Julio Soto eta Amets Arzallusen bertso-saioarekin eman zioten amaiera. Gaintzan ehundik gora lagun bildu ziren ostiraleko herri afarian eta parrandak goizaldera arte iraun zuen. Larunbatean ume-jolasak eta herri-kirol saioa izan zuten. Gaintzan hiru eguneko jaiekin hurrengo urtera arte agurtu zituzten festak. Horra hor bildutako zenbait irudi.



ekin
rotulación
948 85 32 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

GARAIZ
Zure behar eta ordubegira moldatuko gara
ETORRI ETA INFORMAZIA ZAITEZ!!
Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika inglesa
lengua kimika
euskera marrazketa tekniko
historia unibertsitate mailako ikasgaiak
948 504 450
648253525

Iruñean amaituko da 20. Korrika



2017ko martxoaren 30ean Otxandion, Bizkaian, emanen zaio hasiera eta apirilaren 9an iritsiko da Iruñera. AEK-k euskarren alde bi urtetik behin antolatu ohi duen Korrikak 20 urte betetzen dituen honetan, Korrika sortu zuten pertsona horiek omenduko dituzte, "Euskalgintzaren, euskal kulturaren eta euskararen erreferentzia bihurtu den egitasmoa sortzeagatik".



"BATZUK" leloa aukeratu dute oraingoan, "bat" eta "zuk". "Hizkuntza, kultura, mundu BAT sendotzeko bidean, ZUK ere BAT egin dezakezulako, zeure hizkuntza aberastasuna eta kultura aniztasun unibertsala bizi ditzazun: ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz".



Hemendik martxora bitarte antolakuntzan ibiliko direnei lan handia gelditzen zaie aurretik egiteko. Izan ere, AEK-k baieztatu du, gero eta jende gehiagok hartzen duen arren euskaltegiara joan eta euskalduntzeko erabakia, Administrazioaren aldetik jasotzen dituzten baliabideak ez direla nahikoak. Horregatik, aurten Korrikan bildutako dirua euskaltegian laguntzeko erabiliko da. Eta horretarako korrika laguntzaile egiteko deia egin du AEK-k. 12 euroren truke egin zaitez Korrika laguntzaile eta Korrika laguntzailearen pina eta txartela (urtariletik aurrera Euskal Herriko komertzioetan deskontuak eskainiko dizkizuna) jasoko duzu, baita katalogoa ere. Aurten gainera, Korrika laguntzaileen artean sari bereziak zozketatuko dituzte. Animatu eta egin "BAT" "ZUK" Korrikarekin!

- 23 -



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Berri Txarrak taldeak Hego Ameriketako birari ekin dio

Abenduan zehar Berri Txarrak Brasil, Argentina, Txile, Peru eta Kolonbian kontzertuak eskainiko ditu. Lehendabiziko lau emanaldietan Descendents taldearekin arituko da. Punk rock musikaren aintzindarietako bat eta belaunaldi askorentzako erreferente den talde estatubatuarrekin.

Bestetik, Txileko Santiago hirian bi gau jarraian egingo dituzte Fiskales Ad-Hok talde txiletar mitikoarekin, euren 30. urteurren kontzertuetako talde gonbidatu gisa, hain zuzen ere.

Birako zenbait kontzertutarako sarrerak dagoeneko agortu egin dira, bai Brasilen eta baita Txilen ere. Lekunberriko taldea aurretik Hego Ameriketara egona bada ere, lehenengoz arituko dira Perun eta Kolonbian.

Hego Amerikako biraren ondotik, bideoklip berria aurkeztu eta Madrilgo Riviera areto ezagunean bukatuko du "Denbora da poligrafo bakarra" bira, 2017ko martxoan.



- 24 -

KULTURA
DA!

SORKUNTZA
DA!

HITZA
DA!

JAKINMINA
DA!

IKUSMINA
DA!

PARTE
HARTZEA
DA!

51. DURANGOKO AZOKA

BIZITZEKOA

WWW.DURANGOKOAZOKA.EUS

DA!

2016ko ABENDUAREN 2tik 6ra

ANTOLATZALEA

BABESLE NAUTIAK

BABESLE PUBLIKOAK

BABESLE PRIVATUAK

“Ilusioa eta itxaropena, elkarrekin aurrera egiteko”

Mendialdeko Gure Esku Dagok herritarren artean inkesta bat zabaldu zuen Whatsapp eta Facebook bidez. Helburua Gure Esku Dagok bultzatzen duen ekimenari buruz herritarrek duten ezagutza maila eta jarrera ezagutzea zen. Larraun, Lekunberri, Araith, Betelu, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko 398 pertsonak parte hartu zuten; 352k euskaraz egin zuen inkesta, 46k espainolez. *“Kontuan hartzeko moduko lagina da, nahiz eta zabaltzeko erabili diren bitartekoak direla eta adin-tarte mugatuko parte hartzaileak izan (%80 baino gehiago 50 urtetik beherakoak dira)”*.

Herri dinamikako kideek inkesta egin eta gero, Gure Esku Dagok egiten duen aldarrikapenari buruzko ezagutza maila oso altua dela ondorioztatu dute. Inkesta egin duten lagunen %98k ekimenaren inguruko informazioa entzun du eta %91k badaki herritar mugimendu bat dela eta euskal herritarren erabakitze eskubidea dela bere aldarrikapen nagusia.

Norberak duen iritziari buruzko galderetan aldiz, mugimendu horrekiko oso pertzepzio positiboa jaso dute eta aldarrikapenarekiko adostasun-maila oso altua (10etik 9,6koa bataz beste). GEDk zein emozio transmititzen dizkien galdetuta, “Il-

sioa” eta “itxaropena” nagusi erantzun dutenen artean (%75). *“%10 inguruk zalantza azaldu du eta gure erroka da zalantza horiek argitzea. Herri galdeketeri buruz galdegin dugunean, HERRI GALDEKETA 2017rako antolatzea oso komenigarria iruditzen zaiela transmititu digute (8,7ko puntuazioarekin), gainera, %94,5ek baieztatu digu parte hartuko lukeela eta %4ek agian parte hartuko lukeela. Datu hauekin, nahikoa babes dugula frogatu digu planteatzen genuenarekin aurrera egiteko, beraz, PAUSOA EMATERA GOAZ!”*.

Herri galdeketa behar bezala antolatzeko eta emaitzak baliokotasuna izan dezan protokolo zorrotza jarraituko du Mendialdeko GED dinamikak. Lehen pausua proiektua aurkeztea izango da. Abenduaren 17an, Lekunberri eginen dute ofizialki herri galdeketa prentsaurrekoa eta aurkezpena. *“Ahalik eta jende gehien eta anitzenaren babes nahi dugu eta aurkezpena hurbiltzea nahi dugu, argazki polita, jendetsua eta koloretsua ateratzeko. Horregatik, dei egiten diegu erabakitze eskubidea badugula eta praktikan jarri behar dugula pentsatzen duten pertsona guztiei agerraldi horretara azal daitezen. Aldarrikatetik erabakitze pasatzeko garaia delako eta prest gaudelako”*.




GRUPO TANATORIO
IRACHE
 TANATORIO TALDEA
 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es
TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA


urrutia
enea
 etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
 okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
 948 51 30 32


GALBURU eco
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa
 Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
 948 50 40 42

“Gutxienez hamalau gaztainako dozena ematea gustatzen zait”

Etxe batzuetan oraindik gaztainak erretzeko ohiturari eusten diote, baina negua iristearekin batera, batez ere Iruñean gaztaina saltzaileak kalera ateratzen dira. Harold Nuin Gurbindo gaztaina saltzailea horietako bat da.



Harold, izen hori ez da bertakoa... Nongoa zara?

Iruñekoa naiz. Eta Harold nik aukeraturako izena da, Roberto jarri zidaten niri. Baina beti iruditu izan zait izen zuzenegia eta betaurrekoak erabiltzen ditudanez beti “Robertito” deitzen zidaten. Aldatu beharra neukan zerbait zen. Jendeak jarritako izengoitia da Harold, aurretik John Lennon ere deitzen ninduten. Azkenean Harold izengoitiarekin gelditu nintzen eta ondoren erregistroan izena aldatu nuen.

Iruñekoa izan arren Azpirotzera askotan joaten zara...

Bai, orain dela sei urte nire bikokideak eta biok han etxea alokatu genuen, Bengoetxea eta gustura joaten gara.

Eta zergatik Azpirotzen?

Begira, jertse berdea daramat, txiskeroa ere berdea. Kolore berdea asko gustatzen

zait, berezia da. Iruñeko giro gris horretatik ateratzeko beharra nuen. Lehenik Nabaskozera joan ginen urtebetez eta gero Azpirotzera. Lehenengo egunetik oso ongi hartu gintuzten. Elkartera afaltzera gonbidatu gintuzten eta oso pozik. Gure asmoa bertan bizi eta lan egitea zen, baina zaila da eta orain dela bi urte aita gaixotu egin zen eta geroztik asteburu eta jaiegunetan bera zaintzen ibiltzen naizenez ez dut ia denborarik Azpirotzera joateko.

Noiz hasi zinen gaztaina saltzaile lanetan?

19 urterekin hasi nintzen, orain dela 31 urte. Neska batek postua eskatu eta berari esleitu ondoren utzi egin behar izan zuten eta niri eman zidan.

Eta zein kaletan hasi zinen gaztainak saltzen?

Baratxurien plazan, leku arraroa da,

hara ez delako inor joaten sanfermine-tan ez bada. Baina geroztik leku askotan ibili naiz, San Saturnino kalean, Udaltxe plazan ere urte asko egin ditut... Eta orain Mercaderes kalean nago.

Zenbat hilabetez aritzen zara?

Denboraldia urriaren 14an hasten da eta urtarrilaren 14an amaitzen da. Dena den, aurten beranduago hasi nintzen, urriaren amaieran eta ziur aski beranduago amaituko dut. Denboraldi hasierako gaztainak ez zaizkit gustatzen eta gaztaina onak saltzea gustatzen zait.

Gaztainak zerorrek bildu edo erosten dituzu?

Nik beti erosi egin izan ditut. Orain nahiko garesti daude, lau euro gaztaina kiloak. Goizetan gaztainak eskuz pikatut egiten ditut. Ebaki bat egiten diot gaztaina bakoitzari gero erretzerakoan lehertu ez daitezen. Eta arratsaldean saltzera ateratzen naiz.

Eta orain zenbatean saltzen dituzu gaztainak?

Niri merke saltzea gustatzen zait. Kilo batetik lau bat dozena ateratzen ditut. Badira bost, sei edo zazpi ere ateratzen dituztenak. Batzuek gaztainak txikiak edo handiak izan, beti hamabi gaztaina ematen dituzte. Niri beti gutxienez hamalau gaztainako dozena ematea gustatzen zait. Eta txikiak badira hemezortzi edo hogeit. Nahiago dut gutxiago irabazi eta bezeroak pozik egon daitezela.



>> Nor da Nor?



Nor da nor?
Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?



Erantzunak hurrengo
alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!



Aurreko alean kaleratutako argazkia Araitz-Beteluko Astunalde dantza taldeko dantzariena da.

- Ezkerretik eskuinera, goian: Saloa Sarasa, Aitor Goi-koetxea, Kuki Ribers, Emilio Garralda, Jontxu Gorriti, Imanol Iriarte eta Yolanda Eskamendi.

- Erdian: Marta Lopez, Urko Aristi, Aitziber Otamendi, Idoia Urdanpileta, Maite Yeregi, Gorka Elordi, Ade Sotil eta Ainhoa Argiñarena,

- Behean: Agurtzane Huarte, Iker Elordi, Ane Urdanpileta, Ainara Aristi, Jon Elordi, Ibane Sarasa, Oihane Otamendi, Nerea Yeregi eta Rakel Estanga,

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com



Txori kabik

Leihotik beittu eta ebie goien behian. Puff, sutondoako giro hobe da. Goiko koarteko armaiora joan, eta 'Baserritar jantzik' jartzeon poltsa hartuot. Araitz-Beteluko euneako, ta geo eguarritako re atea beharkottot, eta ikusi behar txukun dauden. Kilo batzuk gora-bera gona haundi hoik errex disimulatsettue kurbak, hortaz, kaittuko ezteen beldurrik ezta...

Gona, gonazpikoa, atorra, mantala, zapie...Guun attun-amonak nola ibiltze ote zeen trapu haundi hokin; zenbat kapa! Kanpoko giroa ikusita, ohatze gañean etzan eta hegan burue...'baserritar jantzik' esaten zaie, baño nekez imajinatsettot nik gona luzeak jasota arta-jorran o laie hartu ta lurre jiraten...

-Ze ai haiz neska, garai hontan ohatzean etzanda! Baño, baño, ze ai haiz Xantin galtzak jantzita!!

-Ixo ixo, itxi atea, amak aittukoin da bestela! Beitzan, nazka-nazka inda neon gona zarrokin. Gaurko egualdiekin eozin ateatzeon ba; beti gona barrenak bustita! Nazka-nazka inda neon...

-A!, ya, ta ze in behaun, anaian galtzak jazten hasi? Bertsoak ateakoizkiñe neska, aldeintzan hortik!

-Zer din ba? Igualeko goxo ibiltzetton gizonetakoak. Beitzan, beitzan ze goxo...

-Erotue hau neska!

-Nazkatue neon, beroa itteonean hankartea eosita; hotza itteonean haize preskoa hartuz beti...

-Ja! Gustoa ibiltze haiz bai hi azpialdeak euteatzen! Susto earra hartuko liken Peiok gona azpin txori kabitxo bat bilatu beharrean galtzak sentittuko balizkin. Eee!!...hurruna goiko barrotin txerri zai haula "kontuetzuk esatea" joate zaiñenean, esaion galtzakin hasi beaunela jajaja...

-Eonai ixilik! Bizkarrean eamateiñen akerran espalderoak baño usai haundigoa botatzein horrek...

-Eonai ixilik? Lengoan Aantxapeko askan arropa jotzen ai hitzela, ia lepoa atea beharrean pasa huen Ansastiko Mattin ee, izterretik gora zeoze ikusiko zulakoan....Ta hik, alu horrek, pixkoat goratu gañea...Holakoik etzeon itteik galtzakin e!!

-Ja, ja, ja....gizaajoa, ohartu niñonan bai. Pixko-pixkoat makurtu niñonan esporrak altxatzeko aitzikin ta jesusss....umea bai

ize!! Baño hola etzeon ibiltzeik. Mando gañean enkarguta joate nauen bakoitzean hankartea urratuta etortze naun...

-Bueno, bueno...beste zerbattek urratzein hii hankartea.

-Ba galtzak ez badee, kapitalean ibiltze ditziten algaonezko kulero haundi hoitakoak josi behar zattiñet...

-Eonai ixilik neska....fundamentue din neskak ezten kuleroik behar! Gonazpikoa eta gonakin nahikoa un. Tia ongi gora esporrai eta aurea! Kapitaleko neskoik eztiñe gu bezalako gerrri bueltik, eta horreatik iiltzetton pololoakin, gañetik buelo haundiko gonakin eta gerruntzea ongi estututa! Ta petxun



telazko sostenak....oain esango deen hoik e ibiltzen hasi behaunela...

-Bueno hoi ya, nere bi perlak earki manejatzeizkiñet nik binbilibi bonbolo....ni beiko partez ai naun....

-Ez huke halako problemik nere izterrak baittu...hok etzien haizeai txori kabieño iisten uzten... Mieltxon eskuri bakarra jijijijiji....

Haizeak kontrabentana itxion kolpean esnatu naiz loxorrotik; ai amaaaa....Leihotik beittu eta kazkaarra. Mallo puntetik zuri zurik. Malla potoloak jantzikottot baserritar jantzien gonan azpiko gonazpikoan azpitik. Txori kabik airean ibiltzeko ez da giro jejeje....



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



JULEN EZKURDIA ROTETA

Abenduak 8, 12 urte.

Urte askoz!! Atte, ama, Ane ta
Julion partez, muxu haundiet!!



ALAIN CASTRILLO CRUZ

Abenduak 1, 11 urte.

Zorionak Alain!
Muxu haundi bat Atalluko
famiariaren partez.



MIKEL BULDAIN GARZARON

Abenduak 13, 7 urte.

Zorionak mutiko eta egun ona pasa!
Muxu haundi bat. Aita, ama eta Ane.



OLATZ ALTUNA GAZTELUMENDI

Abenduak 20.

Urte askotako polittena!!
Eutsi bizipoz horri eh, izugarri
kutsakorra da ta!!
Muxu haundi bat, etxekoen partez!!



ANER ARRAZTIO ESTANGA

Abenduak 7, 8 urte.

Zorionak Aner!!
Ongi pasa zure eune ta
muxu haundi bat etxekoen partez.



ENAITZ IRIARTE ETA ANA ARRARAS

Abenduaren 19an urteak betetzen dituzuelako...

ZORIONAK BIKOTE!!!! Segi orain bezain alai eta ongi pasa eguna.
Muxu handi bana amatxo, aitatxo eta lehengusuak.

Zorionak Ana!! Maitasunez zure ama eta Joxe Mari.

Zorionak Enaitz, gure ttikittoa!! Maitasunez Intzako familia.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**
URZUBI S.A.
Lekunberri
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20
urzubi@hotmail.com

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN

- Enpresa eta autonomoen aholkularitza
- Lursailen administrazioa
- Aholkularitza fiskal eta laborala

666 939 332
aramos@ceconsulting.es
www.ceconsulting.es
Etxaburua, 3. Betelu
La Muga enpresa gunea, 11. Orkoien

Iaz baino parte-hartzaile gutxiago Behobia-Donostian

30.000 lagunek baino gehiagok lortu zuten iaz helmugara iristea eta aurten 25.228 izan dira. Parte-hartzearen beherakada gure eskualdean ere nabarmena izan da. Iaz eskualdeko hamar lagun izan ziren lasterketan eta aurten, aldiz, hiru. Hala ere, antolatzaileek emakumezkoen parte-hartzearen gorakada nabarmendu zuten, aurten %23koa izan da emakumezkoen parte-hartzea, urtetik urtera gora.

Sailkapenari dagokionez, Carles Castillejok bigarren irabazi du Behobia-Donostia lasterketa, ordubete eta

hemeretzi segundoko denborarekin. Atzetik sailkatu dira Jose Manuel Dias (01:02:21) eta Pedro Nimo del Oro (01:02:31). Emakumezkoetan, Aroa Merino helmugaratu da lehenik (01:10:53), Clara Simal bigarren (01:12:34) eta Raquel Gomez hirugarren (01:12:58).

Iazko tenperatura altuen ondoren, aurten giro ezin hobea izan zuten korrikalariak 20 kilometroko eta 192 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea egiteko.

Horra hor eskualdeko korrikalarien sailkapena:

Zen-Abizenak	Denbora	Herria
Ander Arraztio Saralegi	01:16:34	Betelu
Angel Soroa Onsalo	01:36:48	Lekunberri
Maialen Ruiz Lodoso	02:00:37	Lekunberri

Julen Kañamaresek eta Arkaitz Jauregik 16.000 euro irabazi zituzten Tolosan egindako desafioan

21 segundoko aldea atera zioten Julen Kañamarek eta Arkaitz Jauregi aizkolariak Xabier Orbegozori. 16.000 euro zeuden jokuan eta bikoteak egin zuen lan berdina egin zuen Orbegozok, berak bakarrik. 20 kanaerdiko moztu eta Tolosako plazari korrika 200 buelta ematea zen helburua. 2 ordu, 12, minutu eta 33 segundotan egin zuen bikoteak lana eta azkenean saria etxera!



abendua

- 3-4** Bigarren eskuko azoka Lekunberriko frontoian.
- 3** Euskararen Nazioarteko Eguna.
- 17** Gure Esku Dagok herri galdeketari buruzko aurkezpena eginen du Lekunberriin.
- 17** Liburu trukaketa eta eskulan tailerra, 11:00-14:00, Beteluko frontoian.
- 24** Olentzeroren etorrera.
- 26** Lekunberriko abesbatzaren kontzertua Lekunberriko elizan.

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Antxumeak eta txerri gizena salgai. 670258202 (Orixenea Baserria).

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.

EUSKARAREN EGUNA

Abenduak 3 larunbata

Aparia Uitziko elkarteetan - 21:00etan - 12€

Entsalada
Txerri saiheskiak
Postrea
Kafea eta kopa

Ondoren herri kantaldia

Tiketak salgai: Ainhoan eta Amairun
Edo deitu: 610 544 828
Apuntatzeko azken eguna: abenduak 1

ARAITZ-BETELUKO KULTUR ASTEA

Abenduak 3

Margoketa 8-11 urte arteko umeentzat eta graffitia 12-16 urte arteko gazteentzat (1. saioa).
Beteluko eskolan, 10:00etatik aurrera.

Abenduak 4

Araitz-Beteluko Eguna Atallun
Goizean zehar artisau azoka, talogileak, zarpantzarrak...
13:00etan Mailoperen aldeko Kaka plasta. Ondoren bazkaria Arruñe elkarteetan Araitz eta Larraungo bertsolariekin eta bertako trikitilariak alaiturik.

Abenduak 5

Aralarko UNIOAri buruzko liburuaren aurkezpena eta mahai-ingurua. Arribeko elkarteetan, 19:00etan.

Abenduak 6

Graffiti margoketaren 2. saioa. Beteluko eskolan 10:00etatik 14:00etara.
"Pausoz pauso, lekuz leku Nafarroan barrena" argazki emanaldia Azkarateko elkarteetan, 19:00etan. Julian Auzmendik gidatuta.

Abenduak 7

Grezian dauden errefuxiatuek bizi duten egoerari buruzko hitzaldia. Nafarroako suhiltzaileak eta Barañaingo Helplna taldearen eskutik. Lezaetako elizan, 19:00etan.

Abenduak 8

Argindarraren faktura ulertzeko dirua nola aurreztu dezakegun ezagutzeko saioa Uztegiko elkarteetan, 19:00etan.

Abenduak 9

"Petresku, Etzi ez Etsi" bertso-antzerkia Eneko Arrate eta Itxaso Paiaren eskutik.
Gaintzako Elkarteetan, 17:00etan. Ondoren merendua. Iزارo Mallabiako kantautore gaztearen kontzertua. Azkarateko elkarteetan, 22:00etan.

Abenduak 10

17:00etatik aurrera, Mus txapelketa, bertso-afaria eta gaupasa Atalluko elkarteetan Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendirekin. Gaupasa Dj Txokorekin.



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15**
948 60 47 24



**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

denda
txikiak,
pertsone
handiak

NIRE DENDA, ZURE ETXEA

Denda txikiak bizia ematen diete gure auzo, herri eta hiriei; tokian tokiko ekonomia bultzatzen dute; eta erakusleho paregabea dira bertako produktuentzat. Horregatik Begoñak eta Jesusek egunero zabaltzen dizkizute ateak.

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra